

KANALAK

Orain, gure kanalak azalduko ditugu, hau da, publizitatea, komunikazioa, salmenta eta banaketa. Hauek oso ondo definitu beharko ditugu gure zerbitzuak arrakasta izan dezan.

Nola aurkeztuko dugu gure zerbitzua? Lehenik, gu joango gara Goierri eskualdean zehar udaletxez-udaletxe gure proiektuaren aurkezpen bat egitera, aurkezpenean atal guztiak definituko genituzke eta beraien gustukoa balitz, gure zerbitzua kontratatuko lukete. Horren ondoren, gurekin harremanetan jartzeko baliabideak emango genizkieke, hauek gure emaila, eta telefono zenbakia kontua izango lirateke, gurekin komunikatzeko modu errazena hauek baitira eta denok eskuragarri dituztelako. Hau egin ondoren gure publizitatea aurrera eramateari ekingo genioke.

Gure proiektua herriko gazteen belarrietara iristeko, hainbat modutara egingo genuke. Adibidez, kartelak jarriko genituzke herri osotik, horrela, gazte guztien eskutara iritsiko litzateke gure proiektuaren sorrera. Modu berean, parte hartu ezin dutenak, ere animatuko lirateke gure ikuskizuna ikustera. Badaezpada, kartelak ez balituzte irakurriko, gu joango gineteke herriko eskoletara, umeak aurrez-aurre entzuteko proiektuaren helburua eta zertan datzan erakustera. Apuntatu nahiko balute galdetegi bat bidaliko genuke eskolara eta bertan edukiko lituzkete apuntatzeko pautak. Teknologiaren erabilera hori gutxitu nahi dugunez galdetegia paper bidez beteko dute. Bertan bete beharrekoa oso sinplea da: taldeko taldekide bakoitzaren izen-abizenak, telefono zenbaki bat eta taldearen izena.



Beste bide bat gazteak lehiaketaren berri izateko, udaletxearen bitartez izango da, udaletxeetan gure zerbitzua aurkeztuko dugu, eta ondoren, beraien mezua zabalduko dute, herriko ikastetxeen artean. Hala ere, gurasoak, umeak edo udaletxeak informazio gehiago eskuratu nahi badute email bat edukiko dugu "ilustratzailelehiaketa@gmail.com" eta gutako norbait emailak erantzuten egongo da.